# Euskal AEko merkataritzako sektorearen salmentek ez zuten aldaketarik izan (% 0,0) 2011ko laugarren hiruhilekoan

## *2011. osoan, igoera % 2,0koa izan zen*

Euskal AEko merkataritzaren sektorea: Eustatek emandako datuen arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan salmenta nominalek ez zuten aldaketarik izan (% 0,0), aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizeak % 0,1eko jaitsiera izan zuen, urtaro-eraginak kenduta.

**1. taula. Urte arteko hazkunde-tasa nominalak. Euskal AE. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak**

| Urtea | Hiruilekoa | Barne-merkataritzaren indizea | Handizkariak | Txikizkariak |
|---|---|---|---|---|
| **2010** | I | 6,5 | 6,9 | 5,2 |
| | II | 8,4 | 12,8 | 1,6 |
| | III | 1,9 | 4,0 | -1,5 |
| | IV | 5,3 | 9,2 | -0,2 |
| **2011** | I | 4,7 | 8,9 | -2,1 |
| | II | 0,7 | 1,5 | -0,5 |
| | III | 2,8 | 4,5 | 0,1 |
| | **IV** | **0,0** | **1,0** | **-1,5** |

**Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Barne merkataritzaren indizea (BMI)**

Sektoreka, 2010eko aldi beraren aldean, Euskal AEko handizkako merkataritzaren salmenta nominalak % 1,0 gehitu dira 2011ko laugarren hiruhilekoan; aldiz, % 1,5 jaitsi dira txikizkako merkataritzan.

Handizkako merkataritzari dagokionez, Nekazaritza eta elikadura produktuen sektorea nabarmentzen da, % 3,6ko igoera nominalarekin. Produktu erdilanduen eta txatarraren sektoreak ere gora egin du (% 2,9). Makineria eta tresneriaren sektoreak ez du aldaketa nabarmenik izan bere salmentetan (% 0,0), aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Elikagai ez diren kontsumo-produktuen sektoreak, ordea, behera egin zuen salmenta nominaletan (-% 6,4).

Txikizkako merkataritzan, euro finkoetan, %1,6 jaitsi dira merkataritza espezializatuaren salmentak, eta % 1,0 ez-espezializatuarenak.

Lurraldeka, 2011ko laugarren hiruhilekoko merkataritza-sektorearen salmenta nominalen igoerarik handiena Gipuzkoan izan da, urte arteko % 2,3rekin. Araban salmenta nominalak % 0,6 hazi ziren. Bizkaian, ordea, behera egin zuten (-% 1,4).

**Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, barne-merkataritzaren salmentak % 3,2 jaitsi ziren laugarren hiruhilekoan**

2010eko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, handizkako merkataritzan % 2,9 gutxitu dira egindako salmentak; txikizkakoan %3,3 murriztu dira.

Handizkako merkataritzaren barruan urte arteko bilakaerak ezberdinak izan dira: Nekazaritza eta elikadura produktuen salmentak % 1,3 igo dira, baina zentzu negatiboan Produktu erdilanduen eta txatarraren handizkako salmentak % 5,4 jaitsi ziren, Elikagai ez diren kontsumo-produktuen jaitsiera % 5,0koa izan zen, eta Makineria eta tresneriaren salmentek % 0,7 egin dute behera, beti termino errealetan.

Txikizkako merkataritzan, euro finkoetan, % 3,3 jaitsi ziren merkataritza espezializatuaren salmentak, eta % 3,0 ez-espezializatuarenak.

Euskal AE osoan, 2011ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektoreko landunen kopurua % 0,5 jaitsi zen 2011ko laugarren hiruhilekoan.

**2011. URTEKO BALANTZEA**

Urte osoan, barne merkataritzaren salmentek % 2,0ko igoera nominal metatua izan dute. Arabak du portaerarik onena, % 4,6ko igoerarekin urte osoan. Gipuzkoan igoera % 2,8koa izan da, eta Bizkaian % 0,8koa, betiere tasa nominaletan.

Termino errealetan, Euskal AEn sektoreak % 2,5eko jaitsiera izan du. Bizkaiak % 2,9ko beherakada izan du, eta Gipuzkoak % 2,3koa. Arabak % 1,5 egin du behera.

2011n, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, merkataritza sektoreko enpleguan gertatutako murrizketa % 1,5ekoa izan da; lurraldeka honela islatu da beherakada: Bizkaian, % 1,0ko beherakada. Gipuzkoan eta Araban % 2,0ko jaitsiera, bietan ere.

***Argibide gehiago:***
*Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.:* ***eustat@eustat.es***
*Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja*
*Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01*
*Euskal AEKo Barne merkataritzaren indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago*
*Euskal AEKo Barne merkataritzaren indizeari buruzko datu-bankua*